



**Mondragon
Unibertsitatea**

Biblioteka

Konpetentzia Digitalak

Graduko ikasleentzako formakuntza materialak

2. Komunikazioa eta lankidetza

2.3. Teknologia digitalen bidezko lankidetza:

2.3.1. Lankidetza linean

CRUE-REBIUNek egindako eta Mondragon Unibertsitateko Bibliotekak moldatutako materiala



Bestelakorik adierazi ezean, itemaren baimena horrela deskribatzen da: Aitortu-EzKomertziala 3.0 Espainia, 2020

Komunikazioa eta
lankidetza.
Teknologia digitalen
bidezko lankidetza

LANKIDETZA LINEAN




CRUE

REBIUN

Red de Bibliotecas Universitarias

HELBURUAK

Jarduera hau amaitzean, gaitasun hauek lortu behar zenituzke:



LABURPENA

- Lankidetza
- Lankidetza linean
- Lankidetza-tresnak linean
 - Tresnak hodeian
 - Ezaugarriak
 - Funtzioak

LANKIDETZA

Taldean lan egiteak lantaldeko kideen arteko **elkarrekintza** prozesua eskatzen du, non **edukia** elkarlanean sortzeko autoritatea eta erantzukizuna **partekatzea** funtsezkoa den.

Taldean lan egiten dugunean, beste lankideekin aurrez aurre koordinatu behar izatearen **zailtasun** erantsiarekin topo egitea ohikoa izaten da.



Ordu horretan
klasea dut



Ezin dut beste
egun batean

Teknologia digitalei esker, aurrez aurreko lankidetzaren **osagarri** bat aurki dezakezu, edukiak urrunetik lankidetzan garatzea ahalbidetzen duten tresnak erabiliz, eta aurrez aurreko lanean espazio-denboraren oztopoak gaindituz.

LANKIDETZA LINEAN

Kasu gehienetan, sareko lankidetzak, aurrez aurreko lankidetzaren alternatiba edo osagarri gisa erabil daiteke.



Komunikatzeko eta baliabideak partekatzeko erraztasuna.



Taldeko kideen arteko elkarreragin espontaneo eza.



Edukietara sarbidea edozein une nahiz lekutatik.



Lankideen hitzik gabeko adierazpenak ulertzeko zailtasuna.



Beharren arabera, modu asinkronoan edo denbora errealean lan egiteko aukera.



Interneteko konexioa eduki beharra.



Taldekide guztiek material nahiz tresna berdinekin lan egiten dute.

Aurrez aurreko lankidetzak posible ez den garaietan, lineako lankidetzak talde lana errazten du.

LANKIDETZA LINEAN

On line lankidetzak tresnek lan akademikoak taldean garatzeko aukera ematen dute:

- Baliabideak partekatuz
- Edukiak lankidetzan sortu eta editatuz
- Besteekin komunikatu eta ikuspuntuak trukatzeko ahalbidetuz

1

**Tresna egokia
aukeratu**










2

**Baliabideak
lankideekin
partekatu**

3

**Edukiak sortzen
lagundu**

LINEAKO LANKIDETZARAKO TRESNAK


Mota	Kategoriak	Ezaugarriak	Adibideak
Web tresnak	<ul style="list-style-type: none"> • Blogak • Wikiak • Foroak 	Web-teknologian oinarritutako tresnak dira. Lankidetzan modu asinkronoan errazten dute, eta feedback-erako funtzionalitateak izaten dituzte.	 PBWorks  Wordpress
Tresna sozialak	<ul style="list-style-type: none"> • Sare Sozialak • Berehalako mezularitza 	Batez ere denbora errealeko komunikaziorako erabilitako plataformak. Gainera, fitxategiak partekatu eta atzak nahiz egutegiak kudeatu ditzakete.	 Whatsapp  Facebook
Hodeiko tresnak	<ul style="list-style-type: none"> • Fitxategiak biltegitratzeko eta editatzeko plataformak • Dokumentuak sortzeko aplikazioak • Zeregin eta egutegien kudeatzaileak • Oharren kudeatzaileak 	Cloud computing-ean oinarritutako aplikazioak, web-erako nahiz gailuetarako bertsioak dituztelarik. Denbora errealean lankidetzan aritzea errazten dute, hodeiko sinkronizazioari esker.	 Google Drive  Dropbox  Evernote  Prezi
Tresna guztiak batean		Hainbat kategoriatako tresnak biltzen dituzten plataformak dira (wikiak, foroak, txatak, egutegiak, etab.).	 Moodle  Kune

HODEIKO LANKIDETZA TRESNAK: EZAUGARRIAK

Hodei edo cloud computing-ari esker, lineako lankidetza-tresna **sinkronizatuak** daude. Hauek, bereziki, denboran eta tokian bereizitako lan-taldeen testuinguruan dira erabilgarriak.

Hodeian oinarritutako tresna horiek honakoak ematen dituzte:

- ☁ Biltegiratzeko lekua
- ☁ Gailuen arteko sinkronizazioa
- ☁ Informazioaren eramangarritasuna
- ☁ Erabiltzeko erraztasuna
- ☁ Kostu txikia (batzuetan doan erabiltzen da)



Hodeiko tresna sinkronizatuak lineako lankidetza-esperientzia osoagoa ahalbidetzen dute

LANKIDETZA TRESNAK HODEIAN: FUNTZIOAK

Linean lan egiteko tresnek rol desberdinak hartzeko aukera ematen dute, horietako bakoitzean normalean izaten diren funtzioei esker.

Funtzioa	Deskribapena
Dokumentuen biltegitratzea	Aurretik sortutako artxiboak edozein formatutan biltegitratzeko gune birtuala eskaintzen du.
Dokumentuak sortu	Dokumentu bat, hainbat formatutan zerotik sortzeko aukera ematen du.
Dokumentuak partekatzea	Dokumentua sortu edo biltegitratzen duen kideari lantaldeko gainerako kideekin partekatzeko ahalmena ematen dio. Gainera, beste baimen batzuk eman ahal izango dizkie lankideei, lankidetza-prozesuari hasiera emanez.
Dokumentuak batera editatzea	Editatzeko baimena duten kideek dokumentuak aldatu ditzakete, modu sinkrono zein asinkronoan.
Iritzia eman edo jasotzea	Fitxategi batean sartzeko aukera duen lan-taldeko edozein kidek lan-prozesuari edo edukien sorrerari buruzko iruzkinak erantsi ditzake, gainerako lankideek ikusi edo erantzun ahal izateko. Halaber, zenbait tresnek txat-a dute denbora errealean komunikatu ahal izateko.
Atzak esleitu	Lana antolatzen laguntzen du, taldeko kideei zereginak esleitzeko aukera emanez.
Aldaketen eta bertsioen kontrola	Edukiak sortzeko prozesuan egindako aldaketa guztiak ikusi nahiz desegin, eta aurreko bertsoetara itzultzeko aukera ematen du.





**Mondragon
Unibertsitatea**

Biblioteka

Zalantzarik baduzu, galdetu zure [bibliotekan](#):



Basque Culinary Center

Biblioteka

Juan Abelino Barriola pasealekua, 101
20009, Donostia, Gipuzkoa.
T. 943574514
biblioteca@bculinary.com

Enpresa Zientzien Fakultatea

Biblioteka

Ibarra Zelaia, 2
20560, Oñati, Gipuzkoa.
T. 943718009
biblioteca.enpresagintza@mondragon.edu

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea

Biblioteka

Dorleta, z/g.
20540, Eskoriatza, Gipuzkoa.
T. 943714157
biblioteca.huhezi@mondragon.edu

Goi Eskola Politeknikoa

Biblioteka

Campus Iturripe. Loramendi, 4. 20500 Arrasate – Mondragon, Gipuzkoa.
Campus Orona Ideo. Fundazioa eraikuntza, Jauregi Bailara, z/g. 20120 Hernani, Gipuzkoa.
T. 943794700
biblioteca.mgep@mondragon.edu